Mikel Resa

Askapenako kidea

Munduko preso politiko guztiak askatu

Askapena jaio zen egunetik, Euskal Herrian, Euskal Elkartasun internazionalista baten beharra eraikitzearen alde dihardu lanean; munduko herriekiko Elkartasuna bultzatzeko abiapuntutzat gure askapen nazional eta sozialerako prozesua bere gain hartzen duelarik.

Behar honen jatorria egungo erlazio politiko-ekonomikoak inposatzen dituen garapen eredu menperatzailea da, Kapitalismoa, eta bere ezarpena munduan.

Bere agerpen mingarrienak inguruan dugun panorama internazionala ikustearekin nabarmendu daitezke: inbertsioen kontzentrazioa Iparreko herrialdeetan, kanpo zorren ordainketa, Ipar-Hego ezberdintasunen zorroztea, ekonomi garapen duala, ezberdintasun sozialen areagotzea, pobrezia boltsak ipar herrialdeetan, gastu sozialen murrizketa, botere ekonomiko zentroetatik inposaturiko egokitze neurri gogorrak...

Guzti honen ondorio munduko % 87 biztanleen % 20ren esku egotea eragiten du. Hau datu bat besterik ez izan arren, hitzean milaka milioi gizon-emakumeen egoera gordetzen da hiltzera, goserra, gaixotasunera, pobreziara eta hurrupaketara kondenaturik aurkitzen direnak.

Kapitalismoaren akumulazioak mundu-merkatu batean oinarritzen den ekonomiaren globalizazio prozesua indartu du, eta neoliberalismoa da gaurko botere eta hurrupaketa tresna berrien aplikazio praktikoa. Neoliberalismoa bitarte interes pribatuen zerbitzurako hedatze fase berri bat hasten da horrek dakarren miseriaren orokortzearekin.

Mundualizazio prozesu honek herri guztiak arerio amankomun baten aurrean egotera eta Elkartasun praktika internazionalista bat aurrera eramatea, hala nola gure herrien askatasunaren alde borrokatzera garamatza.

Nazioartekotasuna eta independentzia, beti erreibindikatu dugun Elkarrekiko Elkartasunari zentzua ematen dioten txanpon bereko bi aurpegiak dira eta askapen nazionala, solidario izan nahi duten herrien bateratasun puntua.

Hau da gure mezuaren funtsa edo arrazoia, *munduko hainbat herrirekin Askapenak erakutsi duen Elkartasuna eskatzea Euskal Herriarekiko.* Honela, espetxeetatik iristen zaigun errealitatea zabaltzeko konpromezua geureganatzen dugu eta egun hauetan gure herri eta hirietako kaleetan barna inoiz baino indartsuago dabilen askatasun oihuari batzen gatzaizkio: *Euskal presoak Euskal Herrira.*

Euskal Preso Politikoak Euskal Herriko askatasunaren aldeko borrokan dirauen Euskal langilegoaren parte garrantzitsuena da eta bera da gure herriaren eta Estatu Espainiarraren arteko gatazka politiko armatuaren ondorio latzenak pairatzen ari dena.

Dispertsioa, isolamenduak, mehatxuak, defentsa juridikoari oztopoak, erasoak, irainak, espetxe aldaketak... hots, giza eskubideen hausketa sistematikoa, hori izaki Estatu Espainiarrak Euskal Preso Politikoen Kolektiboari ezartzen dion neurri errepresiboa, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren borroka politikoaren aurka gobernu espainiarraren tresna bat gehiago da.

Era berean salagarria da Espetxe Erakundeen jokabidea, ehun Preso Politiko inguru bahiturik edukitzeagatik kartzelan, legeari jarraiki kalean aske izan behar zutenenak, bai gaixotasun sendaezina dela medio bai kondenaren hiru larudenak beteak izateagatik.

Eta ezin dugu ahantzi euskal alderdi politiko zenbaiten izaera kolaboratzailea, PNV adibide, oinaze makina hau diseinatzen parte garrantzitsu bezala, senide eta laguntzentzat zigor gehitu bat suposatzen duelarik, hauek baitira, bisitak helburu, milaka kilometro egin behar dituztenak astero-astero honek suposatzen duen arriskuarekin (oso ondorio latzeko trafiku istripu asko izan dira errepideetan zehar, helburu bakarra beste senide edo lagun kuttuna ikustea eta gertu sentitzea denean).

Euskal Preso Politikoak jasaten duen egoera larri hau, are gehiagotzen da GAL edo bestelako talde parapolizialen hiltzaile eta arduradun nagusiak, ia 30 errefuxiatu eta 2 euskal ordezkari politikoren erahilketen arduradunak, kalean paseatzen direnean lasaitasunez ezer egin ez balute bezala.

Jakin badakigu Euskal Preso Politikoen gerturatzearekin Amnistia eta Euskal Herriko askatasunera goazela zuzen-zuzenean. Autodeterminazio eskubidea errespetatzea besterik nahi ez duen herri bat gara. Etorkizuna bakean bizi ahal izateko eskubide demokratiko eta elementala da, eta soilik guk erabaki beharko dugu gure etorkizuna.

Horregatik, datorren otsailaren 1etik 8ra arte, Askapenak astebetez parte hartuko du Donostiako Artzain Onean egiten ari den Gose Greban.

Baina hau guztia ez dela bakarrik etorriko argi izan behar dugu, guztion indarra batzea ezinbestekoa da. Eta internazionalista batek esan zuen moduan:

«Munduko edozein lekuren aurka eginiko bidegabekeria ahalik eta barneen sentitu». ■

Anjel Lobera



Jesus Deus Pazos

Amets gaiztoak modu askotakoak izan litezke: gauez lo gaudelarik izaten ditugunak, eguneango bizimoduak estuasuna sortarazten diguna, inork norberari pairarazten diona...

Izan ere, azkeneko tankerakoa gertatu zaio JDPri. 55 urteko gizonezko honen amets gaiztoa 1996ko abuztuaren 14an hasi zen egun argiz. Egun horretan, bere herriko neskatila batek, 14 urtekoa izan eta burutik gaixorik dagoenak, salatu zuen JDP, bera bortxatzeagatik.

Hasieratik ukatu egin zuen bera bortxatzailea izan zenik. Alferrik, ordea: kartzelaratu egin zuten bortxatzailea izateagatik. Bost hilabete eman ditu kartzelan. Baina 1997ko urtarrilaren 16tik garbi gelditu da bera ez dela neska horrek bortxaketaren ondorioz ekarri duen umearen aita.

Hori frogatuagatik, beraren ardura zuen epaile andreak ez zuen askatu nahi izan eta, azkenik, Jesus Deus Pazosen abokatuek epailea salatu behar izan dute Epai Boterearen Kontseilu Nagusian gizona kartzelatik ateratzeko.

Justizia ematea ez da erraza. Egia! Okerrak egitea gizakumeoi datxekigu. Ados! Baina garbi dago batzuetan okerrean irautea ez dela huts egite baten ondorioa soilik, batzuetan ere justiziaren ardura duenaren apeta eta grina zapuztuen ondore mikatza izaten da. JDPk esan zuen kartzelan bera ondo erabili zutela. Gaitzerdi!

Iñaki Segurola



Txotx!

Badakit asko diferentetu direla, garai bateko saardoteyak sagardoteka bihurtu direla. Basacasheroak bakarrik juntatuko ziren lehen, janean, edanean, adarrean, narratxean... hiritar zintzoen parregarri. Eta aspaldi honetan zer? Zera: exekutiboak, hezurbeltzak, guardozobillak, inteletualak, idazleak, euskaltzaleak, kirolzaleak, boieskautak..., holakoxe giza-jenero txepela aukeran. Usteldu eta gero ontzen omen dira mizpira eta gizona; beste makina bat gauza ere usteltzen da denborarekin eta usteltzearekin batera, jator eta tipiko bilakatzen. Cicatriz-eko Etxebarrieta zenak kantatzen zuena datorkit gogora: «lehen ginen drogadikto batzuk; orain Gazteria gara».

Eta, halaz guztiz, badu txoxperriko sagardo horrekikoak bere zera. Urteko lehenbizikoa izatea, hasikina, ataria, aitzin-jolasa, gerora zer izango den batere axolarik gabe hartzen dena, gogoan josirik gelditzen den aurreneko aldi baten gisakoa, sagasti oso bati eginarazitako pixerreka edo korrimentu parabolikoaren lehen ttanttak..., eta segi nezake konparaziotan, baina ez nintzateke sekula iritsiko behin batean gure Txomin Garmendia maiteari *aiton batek* bota omen zion arrazoi honen parera: «txotxeko sagardoa eta andregaia berdiñak dira; or ez da txarrik izaten, baiña gero izaten dira komeriak!». Gerorik gabe, asentatu eta botilatu gabe, txurrut han eta txurrut hemen: txotxeko bizimodua. Zaila, baina sagardoa bezain naturala.

LAPhITZA

